

» TELEGRAMA

Erresuma Batuko **Ulysses** taldeak zeresan handia eman zuen iaz publikatutako *Law and order* diskoarekin: Hondarribiko Psilocybeneara aretoan ariko dira, **Marmoka** taldearekin batera urtarrilaren 21ean *STOP* Donostiako Tabakalera anime zaleentzat proposamena: Yeon Sang-ho korearraren ***Dae gi eui wang*** filma proiektatuko dute hilaren 22an *STOP* Bilboko Azkuna Zentroak **Joseph Leo Mankiewicz** zuzendariaren filmez osatutako zikloa prestatu du urtarrilean; 18an **Julius Caesar** eta ***A letter to three wives*** eskainiko dituzte *STOP*

» KONTZERTUA

Euli gizona



Montse Auzmendi

Harold Lloyd-en
“Safety last” filmaren musika
 EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA

Zuzendaria: Juan Jose Ocon.

Musika konpositorea: Carl Davis.
 Gasteizko Principal Antzokian.
 Urtarrilaren 4an.

Euskal Herriko Gazte Orkestra ‘Safety last’ film mutuaren musika arrakastaz ari da eskaintzen neguan, Juan Jose Oconen batutapean.



Apustu ezberdina eta titulu ahazte-zina eskaini zigun Euskal Herriko Gazte Orkestrak neguko kontzerturako. Nork ez du gogoratzen Harold Lloyd-en eszena eraikin bateko erlojutik zintzilik? Fotograma hori oso famatua da, baina agian jende askok ez daki *Safety last* (edo *Euli gizona*) pelikulatik ateratakoa dela.

Film hau ikusteko aukera eman ziguten Gazte Orkestrakoek Carl Davis-en soinu bandarekin batera –orkestrak bertan jota–. Emaitza, primerakoa. Hori bai, arrisku txiki bat bazegoen: hain pelikula ona izanda, posible zen musika bigarren planoan geratzea –eta puntu bateraino halaxe gertatu zen–, baina, hala eta guztiz ere, ikuskizun konpleto, dibertigarri eta kalitatezkoa suertatu zen. Publikoak go-

zatu egin zuen eta frogatuta geratu zen Euskal Herriko Gazte Orkestra harrobia baino gehiago dela. Pausoz pauso, Juan Jose Ocon zuzendariak fin eta sendo darama taldea kalitatearen bidetik, eta hori begi bistan dago ematen duten saio bakoitzean.

Esan bezala, aldi honetako proposamena ohiko bideetatik ateratzen zen, eta horrexegatik, gehiago baloratu behar da egindako esfortzua. Ez da lan erraza pelikula bat musikaz azpimarratzea. Doitasun aparta behar da konpositoreak egindako efektuak behar den eszena edo mugimendurekin sinkronizatzeko. Adi-adi egon ginen, eta esan behar da sinkronizazio lana aparta izan zela. Baina ez hori bakarrik. Orkestraren konpaktazio eta soinu-fintasuna deigarriak izan ziren. Musikari guztiek ongi egindako lanaren alaitasuna partekatzen zuten publikoarekin, eta entzuleak horretaz jabetzen ziren. Bestalde, lehen aipatutako musikaren “bigarren mailako rola” ikuskizun honetan –nolabait esateagatik–, ez da negatibotzat hartu behar. Kasu honetan, egia esan, protagonismoa filmarena izan behar zen, eta orkestrak bere lana egin zuen, Lloyd-en maisu-lana girotuz eta behar den magia emanaz.

Oso arrakastatsua izan zen saioa, eta txaloei erantzuteko, bis polit bat jo zuten: Olentz-EGO izeneko jazz moduko Gabonetako kanten medley bat. Ondo egina. Zorionak. ■